

## ASTE NAGUSIKO DJ GAZTEEN II. ERAKUSTALDIA

DJ donostiar gazteen musika-produkzioa ezagutzera ematen laguntzeko helburuarekin, Donostia/San Sebastián Festak erakundeak (Gazteriako udal sailaren eta FNACen laguntzarekin), Aste Nagusiko DJ gazteen II. Erakustaldia Kursaaaleko terrazetan egitea proposatzen du. Eta horren haritik honakoa adierazten dute.

### Oinarriak

#### Erakustaldiko parte-hartzaileen aukeraketa

1. Donostiako 16 urte baino gehiagoko eta 25 baino gutxiagoko (1991 eta 2000. urtea bitartean jaiotako) edonork parte hartu ahal izango du, bai bakarka, baita taldean ere. 18 urte baino gutxiago dutenek amaren, aitaren edo tutorearen baimena aurkeztu beharko dute.
2. Izen-emateak apirilaren 27tik maiatzaren 21era egingo dira, [www.donostiakultura.com/festak](http://www.donostiakultura.com/festak) web orrian argitaratutako inprimakian eskatutako datuak betez: Izen-abizenak, izen artistikoa, harremanetarako telefonoa, e-maila, jaioteguna eta saioan sartzeko link-a –bideoan grabatuta eta **youtubera** edo **vimeora** igota egongo da–.
3. Saioak 30 minutu iraungo ditu. Aukeratutako saioen sarbidea Donostia Festen web orrian ([www.donostiakultura.com](http://www.donostiakultura.com)) jarri ahal izango da.
4. Maketak, derrigorrez, honako musika-genero hauek bildu beharko ditu:
  - Hip-hop
  - EDM
  - Tech-House
  - Remember
5. Erakustaldian parte hartuko duten pertsonen aukeraketa honela egingo da:
  - A. Izangaiek 30 minutuko (gehienez) bideo-saioa grabatuko dute eta **youtubera** edo **vimeora** igoko dute apirilaren 27tik maiatzaren 21era.
  - B. Epaimahaia honako hauek osatuko dute:
    - Musikako irrati-kate nagusietako ordezkariak (Gaztea, Los 40 eta MegaStarFM)
    - Donostia / San Sebastián Festak erakundeko ordezkari batek
    - DJen munduarekin lotutako bi pertsonak
    - Gazteriako udal saileko ordezkari batek
  - C. Epaimahaia saioak banan-banan baloratuko ditu, honako patroi hauetan oinarrituta:
    - Estilo bakoitzeko musika-konposizioen aukeraketa
    - Nahasketen orijinaltasuna
    - Teknika
    - Jendearenganako jarrera (animazio-maila)

Epaimahaiak 5 eta 8 saio artean aukeratuko ditu 2017ko Aste Nagusian “Kursaaaleko Terrazen” festa-gunean parte hartzeko (egunak hautatutako pertsonekin adostuko dira).

Musika-piezak aukeratzeko zein dinamizazioan eta animazioan euskararen lehentasunezko erabilera baloratuko da.

D. Lehen aldiz parte hartzen dutenei lehentasuna emango zaie.

E. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

## Erakustaldian parte-hartzea

1. Hautatutako DJek NANen fotokopia eskuratu beharko diote antolakuntzari.
2. Aukeratutako DJek hautaketan eskatutako lau musika-estiloak plazaratuko dituzte Erakustaldian. Estilo bakoitzeko musikari denbora bera emango diote.
3. DJ bakoitzak bere material propioa edo antolakuntzak haren esku jartzen duena erabili ahal izango du saioa osatzeko.
4. Partaide bakoitzeko Erakustaldiko emanaldiak, gehienez, 40 minutu iraungo ditu.
5. Hautagai guztiek, aukeratuak izan ondoren, Erakustaldian parte hartzeko konpromisoa hartzen dute, baldin eta ez den behar bezala justifikatutako arrazoiren bat gertatzen.
6. Jarrera bortitzen bat, edo gainerako partaideekiko edo bertaratuekiko errespetu falta erakusten duen pertsona zigortzeko, eta kasuren batean, Erakustalditik kanporatzeko eskubidea dauka antolakuntzak.
7. Antolakuntzak emanaldiak grabatu, argazkitan jaso, erreproduzitu eta/edo erakutsi ahal izango ditu, antolakuntzaren beraren helburuetarako erabiltzeko.
8. Erakustaldiko parte-hartzaile bakoitzak jasoko du:
  - 150€ garbi kaxet gisa 40 minutuko emanaldiarengatik
  - Parte hartze ziurtagiria
  - Senheisser markako DJen entzungailu profesionalak, FNACen oparia.
  - Fanc bazkide txartela.
  - Udaleko Gazteria sailaren eskutik Formakuntza ikastaroa DJ profesional batekin Kotadores Gazte Zentroan.

## Oinarrien onarpena

1. Oinarri hauek interpretatzeko eta beharrezkoak iruditzen zaizkion egiaztapenak egiteko ahalmena dauka epaimahaiak, parte-hartzaileak hobeto baloratzeko, eta hauei, edozein unetan, eskaeran bildutako informazioa zabaltzea eskatzeko.
2. Jarduera honetan parte hartzeak Oinarri hauek oso-osorik onartzen direla esan nahi du. Oinarriak –hauen helburuak barne– eta antolakuntzak finkatutako emanaldi-ordutegiak betetzen ez dituen edozein parte-hartzaile Erakustalditik kanpo geratuko da automatikoki.